

KALITATEZKO HEZKUNTZA DENENTZAT ETA DENEN ARTEAN

Euskadiko Eskola Kontseiluak KALITATEZKO HEZKUNTZA DENENTZAT ETA DENEN ARTEAN agiria –Hezkuntza Ministerioak aurkeztuta- aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio, beharrezko eztabaida aberasteko eta Ministerioari geroko legearen testu artikulatua lantzen lagunduko lioketen edo lagundu beharko lioketen ideiak proposatzeko. Dena den, Euskadiko Eskola Kontseiluaren aburuz, Euskal Autonomia Erkidegoak erabateko eskumenak ditu hezkuntza sistema antolatzeke, eta proposatuko den lege organikoak eskumenok errespetatu beharko ditu. Hezkuntzari buruzko lege organikoak eta berori garatzen duten oinarrizko legeek oinarrizko alderdiak baino ez dituzte xedatuko, autonomi erkidegoen eskumenak errespetatuko badituzte.

Agiriaren kapituluak aztertu baino lehen, etapa guztietan eragina duten ohar orokor batzuk egin gura genituzke. Batetik, LOGSE eta LOCEk jasotako zenbait gai ez dira jorratu, hots: hezkuntza berezia, erregimen bereziko irakaskuntzak (arteen irakaskuntza, hizkuntzen irakaskuntza) eta pertsona helduen hezkuntza.

Beste alde batetik, azkenean onartuko den legea garatzeko oinarrizko legerian, gure ustez, ezinbestekoa da etapa bakoitzaren amaieran, lortu behar diren ikaskuntza helburuak eta helburuok ebaluatzeko kontuan hartu behar diren irizpideak argi eta garbi xedatzea, etapen amaierako ebaluazioak zentzuzkoak izan daitezen. Autonomi erkidegoetako hezkuntza administrazioen ardura izango da etapa bakoitzeko curriculumak garatzea eta kasuan kasuko ebaluazioak lantzea.

Halaber, komenigarria izango litzateke beste alderdi batzuk berrikustea, esaterako: alorren egitura; ikastetxeetan hezkuntza eta hezkuntzaz kanpoko figura berriak ezartzea; eta abar. Era berean, ikastetxeen gutxieneko betekizunei buruzko oinarrizko legeria lantzean, ahal den neurrian, zorrotzago jokatu beharko litzateke betekizunokin.

Azkenean, nahiz eta zerbitzu osagarriak (jantokia eta garraioa) eta eskolaz kanpoko jarduerak autonomi erkidegoen eskumenekoak izan, egungo gizartean, gero eta garrantzitsuagoak dira, beraz, komenigarria izango litzateke euren kalitatea bermatzeko gutxieneko orientazioak edo irizpideak ezartzea.

1. HAUR HEZKUNTZAREN IZAERA

Eragilerik gehien aburuz, Haur Hezkuntzak 0-6 urteko etapa izan behar du, zikloka antolatuta egon behar du, eta hezkuntza helburu eta orientazio propioa –ondorengo etapena ez dena– eduki behar du. Hala eta guztiz ere, lehenengo zikloak balio badezake ere familiei laguntza emateko, kontuan hartu behar da ziklo horren hezkuntza helburu eta xede nagusia haurren garapen integrala dela. Dena den, etapa hori

malgutasunez arautu behar da, eta aintzat hartu behar da autonomi erkidegoek eskumena dutela Haur Hezkuntzako zikloak antolatzeko eta artikulatzeko, erkidegoon egoera eta eboluzioaren arabera.

Ontzat jotzen da botere publikoek administrazioekiko lankidetzaren politikak garatzea, Haur Hezkuntzako lehenengo zikloan plaza publiko nahikoak eskaini ahal izateko; izan ere, plazok antolatu eta arautzeko ardura kasuan kasuko hezkuntza administrazioari dagokio. Halaber, gehienek onartzen dute bigarren zikloak doakoa izan behar duela, eta ikastetxe pribatuekiko hitzarmenak sinatu behar direla, komeni delako tarte hori derrigorrezkoa izatea.

Orobat, gehien-gehienek ustetan, haur hezkuntzako maisu-maistra espezializatuek eman behar dute haur hezkuntza; dena den, behar besteko trebakuntza duten bestelako profesionalak euren lankidetzaren eskain dezakete lehenengo zikloan. Hala ere, beharrezkoa da *“behar besteko trebakuntza”* zer den zehaztea.

Ontzat jotzen da Haur Hezkuntzako bigarren zikloan ekitea irakurketa-idazketei. Halaber, atzerriko hizkuntzaren irakaskuntza eta ordenagailuaren erabilera sartzea ontzat jotzen den arren, beharrezkoa da baliabideak eta irakasleen trebakuntza hobetzea. Atzerriko hizkuntzari dagokionez, emaitzak ikertu beharko lirateke. Beste alde batetik, kontuan hartu behar da erkidego elebidunetan etapa hori oso garrantzitsua dela berezko hizkuntzaren ezaguera sendotzeko. Esangura horretan, autonomi erkidegoetako hezkuntza administrazioek erabaki behar dute noiz eta zelan integratu kasuan kasuko curriculumetan atzerriko hizkuntzen irakaskuntzaren hastapena.

Azkenik, Haur Hezkuntzan, baliabide gutxien duten ikasleak ez dira behar beste akuilatzen, beraz, beharrezkoa izango litzateke neurri prebentiboak ezartzea.

2. IKASKUNTZA ARAZOEN PREBENTZIOA LEHEN HEZKUNTZAN

Gehienek iritziak, Lehen Hezkuntzan, etengabeko ebaluazioaren emaitzak erabili behar dira ikaskuntza arazo bereziak dituzten ikasleentzako neurri prebentiboak ezartzeko, arazoak antzematen direnetik bertatik hain zuzen. Halaber, positibotzat jotzen da ebaluazio txostenetara biltzea antzemandako arazoak eta arazoi erantzuteko proposamenak; izan ere, proposamenon artean, ondokoak ditugu: talde malguak sortzea; lan ordu gehiago eskaintzea ikastetxean; jarduera osagarriak ematea; udako hilabeteetarako errefortzu plan berezia abian jartzea; edo ziklo berean urtebete gehiagoz egoteko aukera eskaintzea, eta abar. Dena den, garrantzitsua izango litzateke hezkuntza eragile guztiek inplikazio handiagoa izatea, hartuko diren neurrien garapenean.

Proposamenaren arabera, ondo egongo litzateke lehenengo zikloaren ebaluazio txostenetan irakurketa-idazketen ikaskuntzaren zailtasunak zehatz-mehatz jasotzea, baita zailtasunok konpontzeko proposamenak ere, eragozpen larria izan baitaitezke eskolatzea arrakastaz jarraitzeko. Edu bertsuan, bestelako proposamenak egiten dira gutxietsitako eremuentzat, alegia: irakasle ratio handiagoa gelako, zenbait talde eta gaitan gelak bitan banatu ahal izateko, eta abar.

Ontzat jotzen da ikasleen ikaskuntzen eta ikastetxearen funtzionamenduaren eboluzioan oinarritutako diagnostikoaren ebaluazioa –Lehen Hezkuntzako bigarren zikloko amaierarako (4. maila) xedatutakoa– egitea. Horrez gain, 2. mailan beste ebaluazio bat egitea proposatu da, irakurketa-idazketen ikaskuntza prozesua kontrolatu eta indartzeko. Baina zenbait zalantza argitu beharko lirateke, esaterako: etengabeko ebaluazioaren eta diagnostikoaren ebaluazioaren balizko erabileraren arteko bateragarritasuna; nazioarteko ebaluazioak; edo INECSEn, autonomi erkidegoen eta euren erakunde ebaluatzaileen eskumena eta rola.

Adostasun handia dago maila errepikatzeko irizpideei eta proposatutako jarduera planari buruz, baina aldaketa metodologikoei eta beharrezko giza baliabideei buruzko aipamenak jaso beharko lirateke, kontuan izanda helburu hori bete ahal izateko, irakasleek ahalegin handia gauzatu beharko luketela.

Ontzat jo da familien eta eskolaren arteko konpromiso pedagogikoak sustatzeko proposamena. Konpromiso horietara bilduko dira ikasleen eskola errendimendua garatzeko guraso eta irakasleek egingo dituzten jarduerak.

Lehen Hezkuntzaren amaieran, irakasle taldeek baloratu beharko dute ea ikasleek oinarritzko eta beharrezko gaitasunak lortu dituzten, ondorengo irakaskuntzei probetxua ateratu ahal izateko; eta ikasle bakoitzaren ikaskuntza prozesuaren eboluzioari buruzko txostena landu beharko dute.

3. LEHEN HEZKUNTZATIK BIGARRENERA PIXKANAKA-PIXKANAKA IGAROTZEA

Komenigarria da Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza lau mailatan antolatzea, eta bakoitzaren amaieran, ikasleak ebaluatuko dira eta erabaki egingo da ea ikasleak hurrengo mailara igaro behar duen ala ez, beti ere DBH zikloa dela kontuan izanda.

Oso beharrezkoa da Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen arteko harremana sustatzea, baina ez bakarrik ikasleak Bigarren Hezkuntzara pixkanaka-pixkanaka sartzeko, baita ere bestelako eremu batzuk behar bezala lantzeko. Hortaz, elkarren artean atxikitako Bigarren Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen artean, komunikazio eta lankidetzaren sistema ezarri behar da, bi hezkuntza mailen arteko eta curriculum proiektuen arteko koordinazioa bermatu ahal izateko.

Etapako curriculum proiektua lantzeko prozesuan, DBH ematen duen ikastetxearen klaustroak kontuan hartu beharko ditu hari atxikitako Lehen Hezkuntzako ikastetxeen curriculum proiektuak. Etapaz aldatzean, ikasleak hartu eta uzten dituzten ikastetxeen arteko koordinazioa eta euren proiektuen jarraipena aldeztu behar da. Etapen arteko koordinazioa bermatzeko, egokia izango litzateke etapa bat baino gehiago ematen dituzten ikastetxe publikoak sortzea edo koordinazioa bermatzeko eskumenak dituzten organo berriak sortzea.

Proposamenaren bigarren zatia positibotzat jo da, alegia: oinarrizko eta beharrezko gaitasunak lortzeko errefortzu programak antolatzea, Bigarren Hezkuntzako irakaskuntza ondo aprobetxatzeko errefortzua behar duten ikasleentzat, hau da, Lehen Hezkuntzaren amaieran irakasle taldeak landutako txostenaren arabera, laguntza behar duten ikasleentzat.

Ondoko proposamena ere ontzat jo da: Derrigorrezko Bigarren hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailan, irakasgaien banaketa antolatuko da, halako moldez non ikasleek Lehen Hezkuntzako seigarren mailan baino bi irakasgai gehiago ikasiko duten gehienez. Lehen Hezkuntzan 8 irakasgai ematen direnez, erlijioa edo horren alternatiba barne, eta DBHko 1 eta 2. mailan 11 irakasgai daudenez (aukerakoa barne), irakasgai bat kendu beharko litzateke, hau da, 10 irakasgai denera, eta nahiz eta positiboa izan, ez da lorpen handia, batez ere kontuan hartzen badugu herritarrentzako heziketa emateko proposamen berria. Harantzago joan beharko litzateke eta beste aukera batzuk probatu beharko liriateke, esaterako, orduen eta irakasgaien banaketa berria, arloen araberrako antolaketa, eta abar.

Aukerako irakasgai edo aparteko eskaintza gisa, atzerriko bigarren hizkuntzaren eskaintza LOCEn eta bertoko arautegian (EHAA, 03/03/21) zegoen jasota dagoeneko, eta ontzat jotzen da eta bat dator Europako Batasunaren proposamenekin.

Denok bat datoz tutorearen koordinaziopeko mailako irakasle taldeak sortzearekin, ikasle talde berari eskola ematen dioten irakasleen lankidetzaren sustatzearekin eta lan taldeak bultzatzearekin. Komenigarria izango litzateke irakasle kopurua murrizteko proposamena zehaztea.

Irakasle kopurua murriztea beharrezkoa da, ikasleek irakasle gutxi batzuk izan ditzaten erreferentziatzat, baldin eta irakasleok denbora dezente eskaintzen badiote taldeari, bi irakasgai edo gehiago ematen badute eta taldeko eta banako tutoretza funtzioak egikaritzen badituzte. Proposamen hori bideratzeko, irakasgaien banaketa berrikusi behar da, baita irakasgai batzuk edo alorra zein esparrua emateko irizpideak ere.

Oso garrantzitsua da tutoretza indartzea ikasleei arreta eskaintzeko ordutegia luzatuz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailan batez ere. Dena den, arreta ordutegia –ikastorduetan edo ikastorduetatik kanpo- luzatzeko moduari buruzko zalantzak handiak dira agirian. Tutoretza egikaritzen duten irakasleentzat trebakuntza handiagoa eskatzen da. Irakasle guztien tutoretza funtzioa indartu beharko litzateke, eta irakasle guztiek atazak hartu beharko lituzkete euren gain, gelako tutoretza ekintzaren planaren barruan, baina plan horren koordinazioa eta arduraren tutoretza egikaritzen duen pertsonari dagozkio.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ebaluazioa egiteko proposamena positibotzat jotzen da. Proposamenaren arabera, irakasle taldeak promozio eta titulazioaren inguruko erabakiak hartuko ditu ikasturte eta etapa bakoitzaren amaieran; izan ere, irakasgai batzuk gaundituko ez balira, lan plan berezia egingo litzateke, eta ikasleak plan hori bete beharko luke ebaluazio positiboa lortu ahal izateko.

Proposamenaren arabera, Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, autonomi erkidegoekin lankidetzan, 2003-2004 ikasturtean aplikatutako aparteko erreperazio ereduen abantaila eta eragozpenen inguruko azterlana egingo du, hezkuntza balioa indartu ahal izateko. Izan ere, proposamen hori ontzat jo da. EAEko esperientziari dagokionez, ikasturte horretan aplikatu diren aparteko probak ikasturte amaierako ebaluazioak amaitu eta berehala aplikatu dira, beraz, ez dute balio izan ikasleen benetako erreperazioa egiteko. Beharrezkoa izango litzateke zehaztea aparteko deialdiari eman nahi zaion balioa eta garrantzia.

Ikasturtea erreperikatzeko zehaztutako irizpideen inguruan adostasun handia dago: DBHko maila guztiak erreperikatu ahal izango dira eta bi aldiz gehienez etapa bakoitzeko. Dena den, proposamenaren inguruko zehaztapen handiagoa eskatzen da, oso zehazgabea baita: *“maila erreperikatu behar duten ikasleek, ahal dela, ez lukete erreperikatu beharko egoera berean dagoen talde batean”*.

DBHko bigarren mailarako proposatzen den diagnostikoaren ebaluazioa oso positibotzat jotzen da, eta azpimarratu behar da ikaskuntzez gain, ikastetxearen funtzionamendua, hau da, ikasleen errendimenduei dagokien hezkuntza jarduera baloratzen dela. Lehen Hezkuntzari buruzko atalean esan bezala, etengabeko ebaluazioaren eta diagnostikoaren erabileraren arteko bateragarritasunari buruzko zalantzak agertzen dira. Halaber, ez dira argitu eskumenen eta aparteko proben inguruko zalantzak.

4. IKASLE ANIZTASUNA ETA KONPONBIDE ANIZTASUNA DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAN

Onuragarria da DBHko lau mailetan ikasle aniztasunari aurre egiteko jarduerak garatzea, esaterako, curriculumaren egokitzapena, taldeak matematika eta atzerriko hizkuntzan banatzea, eta aukerako irakasgaiak eskaintzea, non bigarren atzerriko hizkuntza sartuko den. Gaur egun, EAEn, bigarren ziklotik aurrera baino ez dira taldeak bitan banatzen, eta ingelesari eta matematikei eragiteaz gain, gaztelania eta euskaran ere eragina dute, beraz, aurrerapen handia izango litzateke banaketak lau mailetara zabaltzea. Zalantzak ageri dira aukerako irakasgaiak eskaintzeko ereduak ematen dituen antolakuntza aukeren inguruan, ikastetxe txikiei dagokienez batez ere.

DBHko hirugarren mailatik aurrera, eredu malgua proposatzen da, ikasleen beharrian, gaitasun eta interes aniztasunari egoki erantzun ahal izateko. Proposamenean, zehaztasun gutxi agertzen dira. Beste alde batetik, *“bi aukera alternatibo, matematikan eta atzerriko lehenengo hizkuntzan”* aipamenaren ondorioz, zalantzak sortzen dira, LOGSEk ezarri eta LOCEk berretsitako bi motatako matematiken proposamenaren antzekoa delako eta proposamen hori oso gutxitan gauzatu delako, ez bakarrik oso zaila izateagatik antolakuntzaren ikuspegitik, baita ere irakasgai horien izaeraren kontrakoa delako.

Adostasun handi-handia dago curriculum dibertsifikazioaren inguruan, kontuan izanda EAEn egindako aplikazioa oso positibotzat jo dela.

Ez dago inolako eragozpenik Administrazioek indartze neurri osagarri berriak aztertzeko, adibidez, bikotekako programak eta jagoleen tutoretza programak, edo aniztasunari erantzuteko bide berriak garatzea ahalbidetzen duten bestelako berrikuntza eta esperimentazio ekimenak.

Egokiak omen dira lanbide hastapeneko programak –16 eta 21 urte bitarteko gazteentzat–, lehenengo mailako lanbide trebakuntza bideratzen baitute, eta bigarren hezkuntzako titulua eskuratzeko aukera ematen baitute, aldi bereko edo elkarren segidako trebakuntza pasaguneen bidez. Ez da argi ikusten erakundeek (ikastetxeak, udalak, GKEak, eta abar) programa horien eskaintzan parte hartzea, disfuntzioak sor daitezkeelako.

Oso egokia da arazo emozional eta jarrerako arazo larriak dituzten ikasleentzako banako tratamendurako proposamena, eta halaxe jaso zen gure arautegian, baina hezkuntza beharizan bereziei buruzko aipamen orokorrak falta dira.

Ikasle etorkinen eskolatzeari dagokionez, ikasleok euren inguruabarren, ezagupenen eta historia akademikoaren arabera integratuko dira. Adostasun handia dago proposamenaren inguruan, eta azpimarratzen da funtsezkoa dela diru publikoz hornitutako ikastetxe guztien inplikazioa.

Ez dago adostasunik hezkuntza interkulturala aztertzeko behatokia sortzeko proposamenaren inguruan. Ez dago zalantzarik gaia aztertzeko beharri buruz, baizik eta lan hori egiteko erakunde bat sortzeko premiari buruz.

Hezkuntza Administrazioek jarduketak sustatuko dituzte eskola gutxiespeneko arazoak dituzten ume eta gazteen kolektibo eta familiek hobeto onar dezaten ikastetxea eta, oro har, irakaskuntza. Proposamen horren inguruan ere adostasun handia dago, baina zehaztu beharko litzateke zer den eskola gutxiespena, ez baitago talde zehatz batzuei bakarrik lotuta, baizik eta gizarte maila guztiei.

Ontzat jotzen da HZMk, bestelako Administrazioekiko elkarlanean, programa esperimentalak abian jartzea, lehentasunezko arreta eremu eta ikastetxeetan; gerora ebaluazio formala egingo da, emaitzak baloratzeko.

5. XXI. MENDEKO ALFABETOA: ATZERRIKO HIZKUNTZEN ETA INFORMAZIO ETA KOMUNIKAZIO TEKNOLOGIEN HASTAPEN GOIZTIARRA

Den-denak ados daude atzerriko hizkuntza haur hezkuntzako bigarren zikloan sartzearekin. EAEn, praktika hori ia leku guztietara hedatu da, beraz, garapena ebaluatu eta kontrolatzeko garaia heldu da.

Ikastetxe elebidunak ezartzeko proposamena ontzat jo da. Esangura horretan, oso garrantzitsua da berezko hizkuntza duten erkidegoetako esperientziak aprobetxatzea. EAEn, 20 hirueledun ikastetxetan jarri da abian esperientzia hori bigarren urtez. Esperientzia orokortu baino lehen, funtsezkoa da ebaluazio zorrotza egitea.

Hizkuntzen irakaskuntzaren eraginkortasuna pizteko, oso positibotzat jotzen da atzerriko hizkuntzen irakasleen etengabeko trebakuntza indartzea. Halaber, oso positiboa omen da informazio eta komunikazio teknologiak hezkuntzara integratzea, baita proposatutako beste neurri batzuk ere.

Kontuan hartu beharko da bigarren eta hirugarren hizkuntzen ikaskuntza, beste faktore batzuen artean, ikasleen famili eta gizarte inguruaren hizkuntz gaitasun eta aberastasunaren arabera dela. Faktore horren inguruan, desberdintasun handiak daude –gizarte maila eta hizkuntza jatorria–, eta eskolan neurri bereziak eta, ahal izanez gero, orokorrak hartu beharko dira desberdintasun horiek gainditzeko. Era berean, ikastetxean irakasten ez den famili hizkuntza duen ikaslearen hizkuntz garapena sustatu behar da, bigarren edo hirugarren hizkuntza gisa ager dadin curriculumean.

6. BATXILERGO ESPEZIALIZATU ETA HEZIGARRIA: MODALITATEAK ETA AUKERAK

Batxilergoko modalitateak hiru bakarrik izateko -Batxilergo Teknologiko eta Zientifikoa batuz-, eta modalitate bakoitzean, trebakuntza espezializatua lortzeko bide bat baino gehiago egoteko proposamena ontzat jo da oro har. Ondoko proposamenetan, zalantzazko alderdi batzuk zehazten dira.

Irakasgaiari dagokienez esan behar da irakasgai berri bat bilduko dela modalitate guztietara, hezkuntza maila horretako ikasleek gaur egungo egoerari egokitutako trebakuntza zientifikoa lor dezaten. Proposamen horren inguruan, zalantza ugari sortu dira. Ikasgaien arazoa eta horien ordutegia orokorki aztertu behar dira. Egungo curriculumak berrikusi beharko litzateke eta aztertu beharko litzateke zer jakin behar duen adin horretako ikasleak, eta hori guztia kontuan izanda, irakasgaiak eta ordutegia finkatuko lirateke.

Ontzat jo da modalitate bakoitzean ikasleak derrigorrean ikasi behar duen irakasgai kopurua gutxitzeko eta irakasgaiak hautatzeko aukera handitzeko proposamena, baina eragozpen batzuk azaldu dira. Indarreko legerian, bost irakasgai komun eta hiru modalitate daude, beraz, ez dago aukera handirik irakasgaiak gutxitzeko, uste bada modalitateak beharrezkoak direla. Beste alde batetik, aukerako irakasgai gehiago eskaintzeko aukerak handiagoak dira, ikastetxea handia bada; haatik, unitate gutxi dauzkaten ikastetxeetan, berriz, aukerak askoz txikiagoak dira, esperientziak erakutsi bezala.

Aho batez onartu da Batxilergoko Proba Orokorra desagertzeko proposamena. Hala ere, proba homologatuari buruzko zalantza ugari azaltzen dira, eta hurrengo atalean aztertuko da zehatzago.

Orokorrean, ez dago argi zein izango den Batxilergoaren izaera orokorra, eta halaxe azpimarratu dute, alegia: ez dakigu beste ikasketa batzuetarako zubi hutsa edo hezkuntza helburu espezifikoaren duen etapa ote den. Horrez gain, atal hau oso zehazgabea da, eta kezkarriagoa da esaten ez dena baino. Halaber, Lehen Hezkuntzan edo DBHn ez bezala, ez da ezer esaten balore-hezkuntzari, IKTBen ezarpenari edo tutoretzari buruz.

7. BATXILERGOKO TITULUA ETA GOI MAILAKO HEZKUNTZARAKO SARBIDEA

Proba homologatuaren edukiei buruzko iritziak askotarikoak dira, beraz, gai horren inguruko eztabaida sakona egin beharko litzateke.

Proba hezkuntza Administrazioen, unibertsitateen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen arteko lankidetzaren bidez antolatu eta garatu behar dela uste dute gehienek. Halaber, proba gaitzizkoak balio behar du titulazioetara sartzeko, eta funtsezko irizpidea izan behar du plazak esleitzeko garaian. Horren inguruan, adostasuna handia da.

Unibertsitatez, hezkuntza Administrazioez eta unibertsitate koordinazioko kontseiluaz gain, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen ordezkariak ere egon beharko litzateke batzordean.

8. LANBIDE HEZIKETAK TREBAKUNTZA BEHARRIZANEI EMANDAKO ERANTZUNA

Erabatekoa da prestakuntzen eta Lanbide Heziketaren Legea araudien bidez berehala garatzeko adostasuna, eta horretan, gure autonomi erkidegoa izan da aitzindaria.

Ontzat jo da lanbide heziketako tituluen eta horiei dagozkien curriculumen katalogoa etengabe eguneratzeko eta lanbide heziketako irakasleen etengabeko trebakuntzarako neurriak ezartzeko proposamena. Arazoren bat azaltzen da lurralde markoak gaitzizkoak dagokionez, gutxiengoaren espezialitateentzat batez ere, hezkuntza propioa duten autonomi erkidegoetan zailtasunak sor daitezkeelako.

DBH jarraitu nahi ez duten 16 urteko ikasleak lanbide hastapeneko programetara sartzeko aukerari buruzko proposamena bildu da kapitulu honetara. Nahiz eta proposamen horrek ez dion gehitzen inolako ekarpenik 4. kapituluaren azalduetarako, egokia da atal honetan agertzea, lanbide hastapeneko programak Lanbide Heziketaren barruan sartzen dituelako, hau da, programok Lanbide Heziketaren zatiak direlako, eta ez delako uste ikasteko edo eskolan integratzeko zailtasunak dituzten ikasleentzako arreta neurri hutsak direnik.

Goi mailako trebakuntza zikloetara igarotzeko ikastaroa proposatu da teknikari titulua dutenentzat, eta proposamen horrek gehiengoaren adostasuna jaso du. Dena den, zalantza ugari azaltzen dira proba prestatzeko ikastetxerik egokienari buruz, probaren edukiari buruz, edo ikastaro horretan lortutako notei eman behar zaien balioari buruz, besteak beste.

Pertsona helduei hezkuntza eta trebakuntza programak bizitza osoan eskaintzeko proposamena ontzat jo den arren, gure ustez ez da komenigarria pertsona helduentzako irakaskuntza-erreferentzia bakarra lanbide heziketari lotuta egotea, izaera hezigarri hutsa daukalako eta hezkuntza ikuspegi zabalagoa behar delako.

Azkenik, azpimarratu behar da kapitulu horretan ez dela aztertzen ikasketa horien izaera: lan merkatuari eta enpresen beharrezkoen begirako trebakuntza ikasketa hutsak diren edo funtsezko hezkuntza izaera ote duten.

9. BALOREAK ETA BALORE-HEZKUNTZA

Adostasun zabala dago balore-hezkuntza bultzatzearen inguruan, bai eta, printzipioz, herritartasunerako hezkuntza -alor berria- sortzearen inguruan; horrela, alor hori derrigorrezko curriculumera bildu gura dute, zehar gaien bidez ezin baitzen lortu. Ez dago argi zelan egingo diren bateragarri neurri hori eta DBHko eta Batxilergoko irakasgaiak gutxitzeko asmoa.

Ez dago inolako arazorik alor horretara –herritartasunerako hezkuntza– bildutako edukien inguruan; izan ere, edukiok ondokoak dira: erregimen demokratikoek babesten dituzten eskubide eta askatasunei buruzkoak; gatazken konponbideei, gizon eta emakumeen arteko berdintasunari, eta emakumeen kontrako indarkeriaren prebentzioari buruzkoak; tolerantzia eta gutxiengoaren onarpena; eta kultura desberdinen eta etorkinen onarpena, gizarte eta kultur aberastasunerako faktore gisa.

Gazte-gaztetatik hasi beharko litzateke alor berri hori ematen, alor askorekin gertatzen den bezala. Lehenengo etapetarako, ondoko eduki espezifikoak iradoki dira: asertibotasuna, autorregulazioa, elkarlanerako ikasketa, erantzukizuna, komunikaziorako trebetasunak, gatazka konpontzeko trebetasunak, eta abar.

Haur eta Lehen Hezkuntzan, mailako tutore taldeek egingo dute proposamena, aholkulariak emandako aholkua kontuan izanda eta Ikasketa buruaren koordinaziopean; Irakasle Klaustroak, berriz, proposamena onartzea edo ez erabakiko du eta Eskola Kontseiluari jakinaraziko zaio.

Neurri hori Bigarren Hezkuntzan aplikatzearen inguruan, askoz zalantza gehiago sortzen dira, alegia: Gizarte Zientzien Sailari bakarrik egokitzea, irakasgaia txandakako ikasturteetan ematea, eta ordu gutxi izatea.

10. ERLIJOEN IRAKASKUNTZA

Kapitulu hauxe da dokumentu osoan gaitzespenik gehienak jaso dituen, eta jasotako iritzien arabera, eragilerik gehienak ez daude ados egungo egoerarekin; izan ere, LOCE indarrean jarri ez den arren, dokumentuak lege horren alderdirik garrantzitsuenak jasotzen ditu.

Hain zuzen ere, erlijioen irakaskuntza konfesionalaren, berorren antolakuntzaren eta alternatibaren inguruko proposamenak (10.2, 10.3 eta 10.4) dira baloraziorik txarrena jasotzen dutenak, eztabaidarako agiria osatzen duten 82 proposamenen artean.

Gogor gaitzetsi da erlijioen irakaskuntza konfesionala derrigorrez eta modu orokorrean eskaintzea, uste baita eskola ez dela eremurik egokiena erlijio baloreetan hezteko. Izan ere horrexen kontra adierazi da gaitzespenik handiena.

Hona hemen erlijio irakaskuntza derrigorrez eskaintzearen ondorio gaitzesgarri bi: batetik, ikastetxeek behar bezala jaso behar dituzte irakaskuntza konfesionalak hartu nahi ez dituzten ikasleak; eta bestetik, banako salbuespenak gerta daitezke. Adostasuna dago, ordea, erlijio irakaskuntza konfesionala nahi ez duten ikasleei hezkuntza jarduera alternatiboa eskaintzearen inguruan.

Ñabardurak ñabardura, egokia da erlijioen irakaskuntza ez konfesionala –alor desberdinetara bilduta, alegia: geografia eta historiara, filosofiara eta herritartasunerako hezkuntzara– ematea, proposamenean jaso bezala, eta ezin da alde batera utzi alor berezia eratzeko aukera.

Goian esandakoa kontuan izanda, erlijioen irakaskuntza emateko irakasleak kontratatzearen inguruan, ez dago eragozpenik irakasleon lan eskubideak aintzatesteari dagokionez, baina kontraesankorrak omen dira kontratazio sistema objektiboa eta kasuan kasuko erlijio hierarkiaren irizpidearekiko menpekotasuna.

11. HEZKUNTZA LANBIDEAREN KALITATEA ETA BALORAZIOA

Proposamen orokorraren inguruko adostasuna handia da. Dena den, ondokoak zehaztu behar dira:

- ✓ Irakasleen hasierako trebakuntza: ontzat jotzen da lanbidea egikaritzen den lehenengo urtean (praktikan), alboan tutorea izatea. Bigarren Hezkuntzako irakasleentzat, aldiz, ez da bermatzen lehenengo etapetan jasotzen den trebakuntza pedagogiko berbera.
- ✓ Irakasleen lanbide garapena eta ordainsariak: irakaskuntzako praktikaz gain, ikastetxeko atazetan eta proiektuetan izandako inplikazioa ere baloratu beharko litzateke.

- ✓ Irakasleen gizarte aintzatespena: Administrazioa bera da bidea urratu behar duena; lehenengo urratsetako bat irakasleen lan osasuna legez arautzea izan beharko litzateke.
- ✓ Irakasleei agindutako irakaskuntzaz kanpoko atazak: ezagupen alor zehatz baten irakaskuntza jarduketak baino, garrantzitsuagoak dira kudeaketa funtzioak eta hezkuntza funtzio orokorrak. Dena den, ataza berezietarako beste profesional batzuk kontratatzeko eskatu da.
- ✓ Hori guztia kontuan izanda, komenigarria izango litzateke irakasleari eratzkitako funtzioak zehatz-mehatz definitu eta katalogatzea, alegia: irakaskuntza funtzio hutsak, irakaskuntzaz kanpokoak eta bestelako ataza batzuei buruzko funtzioak, esaterako, administrazio eta antolakuntza kudeaketa, hezkuntzako laguntze eta indartze lanak, ikasleen tutoretza eta orientazioa, familiekiko koordinazioa, gatazketarako bitartekaritza, ikasleen aniztasunaren tratamendua eta zehaztu beharreko beste batzuk.

12. HAUTAKETA ESKUBIDE GISA ETA ANIZTASUNA BALIO LEGEZ

Handia da kapitulu honetara bildutako proposamenen inguruko adostasuna. Eta bereziki ondoko proposamenaren gainean: diru publikoz hornitutako ikastetxe guztiek zailtasunik handienak dituzten ikasleen eskolatzean ekitatiboki parte hartu behar dute eta mota guztietako bazterkeria saihestu behar da. Dena den, beharrezkoa omen da printzipio horren aplikazioa bermatzen duen neurriren bat zehaztea, esaterako, matrikulazio prozesuaren zentralizazioa. Izan ere, ez da nahikoa printzipio horren aplikazioa bermatzeko lege eta araudi tresnak hartzeari buruzko aipamen orokorra egitea.

Lehentasunezko arreta eskatzen duten eremu edo ikastetxeetan hezkuntza kontentsazioko programak sustatzearen aldeko adostasun handia dago. Eskola porrotaren prebentziorako programen baitan, arazoak dituzten ikastetxeetako instalazioak hobetzeko programak daude.

Halaber, oso interesgarria eta premiazkoa omen da zentroak eskola ordutegiz kanpo erabiltzea eta ingurunera zabaltzea, beste erakundeekin konpartitutako kudeaketarako programen bidez.

13. PARTE HARTZEA ETA ZUZENDARITZA: ERANTZUKIZUN KONPARTITUA

Adostasun handia dago eskola erkidegoak ikastetxeen zuzendaritzan eta kudeaketan eragin handiagoa lortzeko neurrien inguruan. Egokia izango litzateke gurasoen, ikasleen eta irakasleen eskubideak eta betebeharrak jarduketa eremu horretara biltzea, euren arteko lankidetzak handiagoa izan dadin, batzuen eta besteen funtzioak nahastu barik eta funtzioen arteko oreka galdu gabe.

Beharrezkoa omen da LOCEren aurreko legeriak Eskola Kontseiluari eratzikitzen zizkion eskumenak eta erabakimen gaitasuna berreskuratzea, eskola erkidego osoa ordezkatzeko baitu kontseilu horrek. Hori dela eta, beharbada, ez da nahikoa antzinako eskumenak “berreskuratzea”, eskumenon bidez lortutako autonomi maila ez delako aski izan.

Proposatutako zuzendaritza ereduak -kide anitzekoa eta parte hartzailea- egokia izan da, baita hautapen prozedura ere, garrantzia eman baitiote ikastetxearen iritzari. Gehiengoaren ustez, zuzendaritza karguan aritzeko, hasierako trebakuntza behar da, baina betekizun hori ez da ezinbestekoa hautagaiak aurkezteko.

Eskola Kontseiluaren –ikastetxe osoaren ordezkaria– erabakimen gaitasuna gehitzeaz gain, zuzendaritza taldeak eskumen gehiago eskuratu behar du kudeaketaren alorretan, alegia: antolakuntzan, pedagogi edo curriculum alorrean, ekonomikoan eta langileen kudeaketan.

Premiazkoa da Administrazioaren eta ikastetxeen arteko komunikazioa hobeto lantzea, baina lehen zehaztutako prozedurek –koordinazioa eta kontsulta– harreman eremuetako periferian baino ez dute eragina.

Beharrezkoa da zuzendaritza funtzioa ebaluatzea, hots, baliozkotzat jotzen dute aintzatespen ekonomikoa ematea, osagarri espezifikoak zatika sendotzearen bidez, eta zuzendaritza funtzioan aritu izana merezimendu profesional gisa hartzea; izan ere, aintzatespen hori eta merezimendu profesionala zuzendaritza taldeko kide guztiei aitortu beharko litzaieke.

14. AUTONOMIA ETA EBALUAZIOA

Adostasun handia dago lehen azaldutako markoaren inguruan, non ikastetxeek autonomia handiagoa izango duten eta ondorioz, baliabide egokiak jasoko dituzten, eta kasuan kasuko ebaluazioa egingo zaien.

Oso interesgarria da, ezohikoa baita, 14.2. proposamenean adierazitako formula; izan ere, formula horren arabera, baliabide ekonomikoak, materialak eta giza baliabideak ikastetxearen proiektuei eurei egokituko zaizkie. Zenbat eta autonomia handiagoa izan, orduan eta garrantzitsuagoa da ebaluazioa. Hala ere, ikastetxeak ebaluazioan parte hartu behar du, hots, ebaluazioa ezin da kanpoko eragilean (Ikuskaritza edo bestelakoak) esku bakarrik utzi.

Ontzat jotzen da ikastetxeen funtzionamendua hobetzeko ebaluazio planei buruzko aipamena, ikasleen errendimendu akademikoez gain, irakasleen lan profesionala eta ikastetxeko zerbitzuen funtzionamendua ebaluatzen direla ulertzen baita.

BILBO, 2004KO AZAROAREN 24A